

## Donostian, 2003.eko azaroaren 28an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,  
Henrike Knörr, euskaltzainburordea,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Beñat Oihartzabal, Iker sailburua,  
Andres Urrutia, Jagon sailburua,  
Patxi Altuna,

Jean Louis Davant,  
Andolin Eguzkitza,  
Andres Iñigo,  
Juan Mari Lekuona,  
Jose Luis Lizundia,  
Patxi Ondarra,  
Txomin Peillen,  
Pello Salaburu,  
Ibon Sarasola,  
eta Piarres Xarritton,  
euskaltzainak.

Pello Telleria, idazkariordea, eta Juan  
Jose Zearreta, kudeatzailea, zegozkien  
gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Jose Antonio  
Arana-Martija, ebakuntza izan duelako.  
Beren ezin etorria adierazi dute, halaber,  
Emile Larrek, Miren Azkaratek, ahala P.  
Salabururi eta Patxi Zabaletak, ahala A.  
Iñigori emanez..

Batzarra goizeko 10,20an hasi da Donostiako Diputazioaren jauregiko tronu aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

### 1. Akta onartzea.

Irailako batzarraren akta, J.L. Lizundiaren ohar batekin, onartu da.

### 2. Onomastika.

Nafarroa Behereko 6. eskualdea – *Agararant* – aurkeztu da. Oharrak abenduarien erdirako bidali beharko dira.

### 3. Hizkuntza arauak: Hiztegi Batua.

*Arma-arrimu* zerrenda onartua banatu da.

Ondoren, *arrimugarri-askatu* zerrendan egindako *artamendu* eta *asistar* arteko oharrak aztertu dira

### 4. Iruñeko Udalaren eskaria.

Iruñeko Udalak erdarazko *Plaza del Baluarte* euskaraz nola itzul daitekeen galdetu duela eta, horri eskaini lekizkiokeen itzulpenak aztertu ondoren, egokiena *Baluarteko plaza* erabaki da. Hala jakinaraziko zaio.

### 5. Batzar egutegia.

P. Telleriak Euskaltzaindiaren 2004.eko batzar-egutegia aurkeztu eta, eztabaidatu ondoren, honela uztea erabaki da:

Urtarrilaren 30an Donostia.  
 Otsailaren 27an: Egoitza.  
 Martxoaren 26an, Lezaman (Bizkaian).  
 Apirilaren 30an: Donostian.  
 Maiatzaren 28an: Durangon.  
 Ekainaren 25ean: Egoitzan.  
 Uztailaren 23an: Haltsu-Larresoron.  
 Irailaren 17an: Gasteizen  
 Urriaren 22an: Lizarran.  
 Azaroaren 26an: Donostian .  
 Abenduaren 17an: Egoitzan.

## 6. Hiztegi Batuaren prozedura azkartzeko proposamena.

P. Salaburuk eta X. Kintanak adosturiko testua eztabaidatu eta J.L. Lizundiak, pertsonak barik, karguak aipatzeko eta artikulazio zerbakiak ongi jartzeko zuzenketekin onartu da. I. Sarasolak ohargintza Euskara Batuko batzordetik ez pasatzea ere aipatu du. A. Urrutiak zuzenketa hori idatziz aurkezteko eskatu du A. Urrutiak.

## 7. Hitzarmen berria.

Jasoriko oharrak aztertzean. J. Haritschelharrek 4.1.1. puntuan Euskaltzaindiaren aurrekontuak iraila amaitu baino lehen aurkeztea proposatu eta ontzat eman da. 4.2 puntua nahitaezkoa da dagoen bezala uztea. 4.3.2. Eginiko lanen txostenak agintariei zenbatero aurkeztu behar zaizkien eztabaida izan da. Azkenean urtean behin aurkeztea erabaki da, proiektu konkretuetan, bakoitzaren baldintzen arabera, txostenak maizago aurkeztuko diren arren. 6.3. puntuan urtarrilaren 20rako osokoaren %10, protokoloa sinatu eta bi hilabetera %40 eta ekainean gainerako %50a jartzea onartu da. P. Salaburuk 5.2.ko puntuari buruzko zalantza-galderari erantzun zaio, puntu hori agintariekin adostu zela argituz. Era berean Euskaltzainek Zuzendaritzari negoziatzeko ahala eman diote, eta negoziazio horren ondorioz beharrezko diren aldaketak egiteko ere, betiere osoko bilkurari kontu emanez.

## 8. Esku artekoak.

### 8.1. Ortotipografiaren irizpena.

Corpus batzordeak *Ortotipografiari* buruzko irizpena prestatu du, Hezkuntza Sailak Euskaltzaindiari eskatua.

### 8.2. Onomastika idazkariaren lan egoeraz.

Mikel Gorrotxategi jaunaren egoera azaldu da, aurtengo abenduaren bukaeran Santurtziko Udalarekin Euskaltzaindiak duen hitzarmena amaitzen baita. Zuzendaritzak lankide hori urtebete gehiagorako kontratatzea erabaki du. EUDELeK hitzarmen berriak jasoriko diruaz gainera, helburutu gabeko diru-iturriekin ordainduko zaio.

### 8.3. Kontularitza-laguntzailea.

J.J. Zearreta kudeatzaileak atzeraturiko ordainketak eta arintasunez egiteko beharrezkoa dakusa laguntza izatea. Hori dela eta, Zuzendaritzak Bilboko egoitzarako laguntzaile bat sei hilabeterako lan-kontratua egitea ontzat hartu du.

#### 8.4. Euskara Batuko lantaldearen ohiko prestalana bermatzeko baldintzak.

P. Salaburuk azalpenak eman ditu Euskaltzaindiak aspaldian UZEIpean daraman lan menpekotasunaz. A. Urrutiak azpimarratu du Euskaltzaindiak UZEIrekin kontratu berri bat egin behar duela eta horrek nahitaez dakarrela haren egitekoa aurrekontu arruntean ez baina programetako aurrekontuan sartzea, kontratu hori dela bide gehiago X. Kintanak eta J.L. Davantek Hiztegi Batuko iritzi-emaileen fasea kentzea proposatu dute, lanari bizkortasuna emateko, bide batez kostuak urrituz. Zuzendaritza ahaldundurik geratzen da arazo hau zuzentzeko, betiere Euskara Batuko Buruarekin hitz eginda.

#### 8.5. Nafarroako berri batzuk.

Andres Itigok Nafarroako berri batzuk eskaini ditu. Alde batetik, Iruñeko udalarekiko hitzarmen berriaren sinadura.

Bestalde, Nafarroako Epaitegi Gorenak *Orkoien* herri-izenaren aldeko epaia eman duela jakinarazi du. Gainera, beste epai-erabakien bitartez, hemendik aurrera eremu euskalduneko langile funtzionarioak ez dira zigortuko eremu misto eta ez euskaldunetara pasatzen galaraziz.

J.M. Satrustegi zenaren hutsunea betetzeko, Patxi Salaberri euskaltzain urgazlea *Fontes Linguae Vasconum* zuzendari izendatu dutela adierazi du.

#### 8.6. Cambio 16-k Euskaltzaindiari saria.

*Cambio 16-k*, azken aldion Euskal Herrian *Aldaketa 16* izenarekin aldizkari bat argitaratzen duenak, gutun bat helarazi dio Euskaltzaindiari, euskararen sustapen eta normalkuntzaren alde egiten duen lanagatik saritzea erabaki duela azalduz.

#### 8.7. Gerediaga Elkartearen gonbita.

Aurten Durango egingo den Euskal Liburu eta Disko Azokaren 38. edizioa dela eta, Gerediaga Elkartek Euskaltzaindia inaugurazio-ekitaldira gonbidatu du.

Bilkura 6,30etan amaitu da.

Irteeran Rikardo Badiola argitalpen eragileak eta Jon Artza argitalpen banaketa-zerbitzuburuak euskaltzainei ondoko liburu eta argitalpen hauek eman dizkiete:

1. *Euskera* agerkaria, 2003,1.
2. Arnaud Oihenarten *Euskal atsotitzak eta neurtitzak*, P. Altunak eta J.A. Mujikak prestatutako edizioa.
3. R.M. Azkue lehiaketan 2002an sariturikoen lanen bilduma, Bilbao-Bizkaia Kutxa – Euskaltzaindia.
4. 2003.eko Gabon-txartelak.
5. Durangoko Euskal liburu eta disko azokaren 38. edizioaren argibide-gonbidapenak.

Euskaltzainburua,  
Jean Haritschelhar

Idazkaria,  
Xabier Kintana